

GURASOEN OFIZIO ETA AFIZIOAK EZAGUTZEN



ARBIASKA

ANGIOZARKO HERRI ESKOLAKO GURASO

ELKARTEA

Sarrera

Angiozarko eskola, auzo eskola txikia da. Bertan 16 haur daude 2 urtetik hasi eta 9 urte artekoak. Haur talde txikia izateak, eskolan zein horren inguruan, guraso eta irakasleen artean, sortzen diren harremanak bereziak izatea eragiten du. Eskolaren izaera berezi horrek, elkarlanean egin daitezkeen ekimenak aurrera eramateko zein guztion elkar ezagutzan sakontzeko aukerak eskaintzen ditu.

Testuinguru horretan, eskolako taldea osatzen dugun pertsonen ezagutza sakontzeko helburuarekin interesgarria iruditu zaigu haurrak zein irakasleak gurasoen lanbideak ezagutzea, gurasoen egunerokotasuna ezagutu eta hobeto ulertzeko bide gisa. Guraso taldean dauden lanbide bitxiak aukeratu ditugu ume guztientzat erakargarri izan daitezen.

Bestalde, natura ingurune batean kokatzen da gure auzoa, baserriz, mendiz eta ortuz inguratua, eta erreka txiki garbi baten alboan. Ingurune horretan, umeei naturarekiko gertutasun horren jabe izatea eta naturan inguruko zaletasunak bultzatzea nahi izan dugu.

Gurasoen ezagutza beraien afizioetara gerturatuz zein natura inguruko zaletasunak lantzeko helburuarekin hil gabeko arrantza eta eskaladari buruzko ekintzak aukeratu ditugu proiektua garatzeko.

Bukatzeko, ikasturtean zehar sortzen diren eskaera eta egoerei erantzuna emanez, hainbat gurasoren ezagutza zein praktika aprobetxatu ditugu eskolara ekarri eta komunitatearekin partekatzen.

Jarraian, iazko ikasturtean aurrera eramandako ekintzak zehaztuko ditugu, baita aurten burutu ditugunak zein aurreikusten ditugunak.

Proiektuaren izena:

Eskolako haurren gurasoen afizio eta ofizioak ezagutzen.

Helburuak:

- Gurasoak eskolara gerturatu
- Eskolako haurrek beste gurasoekiko ezagutza areagotu
- Guraso eta seme-alaben elkarrenganako ezagutza landu.
- Haur eta gurasoak hainbat jardueretan elkarrekin aritu.
- Irakasle, guraso, ikasle eta herriko familien arteko interakzioa bultzatu.
- Gurasoen jakintzak generazio berriei ezagutzera eman.
- Haurrengan naturarekin lotutako zaletasunak bultzatu.

Partaideak:

- Eskolako haurrak, irakasleak, gurasoak eta auzotarrak.

Deskribapena:

2012-2013 ikasturtean burutako ekintzak:

Suhiltzaileak

Eskolako ikasle baten aita suhiltzailea da, lanbidez. Haurrentzat lanbideak duen erakargarritasuna aprobetxatuz, proiektuari hasiera emateko aukeratu genuen.

Atal hau eskolarekin elkarlanean gauzatu genuen. Ikasleek eskolan gai hau aitzakiatzat harturik, lan proiektu txiki bat burutu zuten. Aurrez aipatutako ikaslearen aitaren lankidetzan egon da lan-proiektu hau aurrera eramateko. Jakin badakigu, edozein gai baliagarri zaigula umeekin curriculumak markatzen dituen helburu eta edukiak lantzeko. Beraz, oraingo honetan, gai hau erabili zuten irakasleek lortu nahi zituzten xedeetara iristeko.

Ondorengoak izan zen antolaketa:


Eskolan aste beteko tartea eskaini zioten gai hau lantzeari (maiatzaren 13an hasi eta 16ra arte).

1. Proiektuaren hasiera: Maiatzaren 13an, goizean, irakasle eta ikasleek gaiaren inguruko aurrezagutzak arakatu zituzten. Galdera eta elkarriketaren bitartez gaian sarrera egin zuten. Arratsaldean, berriz, suhiltzailea den gurasoarekin saioa antolatu zen (saio honetara beste guraso guztiak ere gonbidatuta egon ziren), ofizioarekin lotutako materiala aurkeztu zitzaizkien haurrei eta baita suhiltzaileen lan esparru desberdinez hitz egin.

Gainera, goizean eskolan prestatutako galderak egiteko aukera izan zuten.



2. Astean zehar ikasleek eskolan gaia jorratuko zuten: gure inguruko suhiltzaile parkea non dagoen, zeintzuk diren suhiltzailearen lan arloak, zein material erabiltzen den ...



3. Proiektuari amaiera emango zitzaien Suhiltzaileen etxera bisita eginez apirilaren 16an, arratsaldeko 16.00etan. Irteera eskolako ekintza izan zen eta eskolako orduetan egin genuen. 15 ume eta 13 helduk (guraso, irakasle eta eskolako beste langile batzuk) parte hartu genuen.

Bertan, hasteko, hitzaldi txiki bat eman ziguten eta oparitxo bat jaso genuen. Hitzaldi honetan sute batean nola jokatu azaldu ziguten. Opari gisa, mosketoi eta soka bat banatu ziguten eta segurtasun korapiloa egiten ikasi genuen.



Ondoren, sute baten simulakroa bizitzeko aukera izan genuen eta bideoan ikusitakoa praktikan jarri. Suhiltzaileak leihotik gure bila etorri ziren eta garabian irteteko aukera izan genuen.



Tutu malguarekin praktikak ere egin genituen, bai heldu zein umeek:



Kamioen tripak ikusi eta kamioan barrena ibili...



Eraikina erakutsi ziguten:



Jantziak eta material txokoa. Berehala aterat dena prest.

Kontrol gunea






Aldagelak



Gimnasioa

Eta bisitari amaiera eman aurretik, hasierako puntura suhiltzaileen barratik jaitsi ginen.



Eta bukatzeko, **SORPRESA!!!** Merienda eder bat prestatu ziguten beraien sukalde egongelan.



ESKALADA

lazko ikasturtean matrikula burutu zuen ikasle baten (aurten ikasle) gurasoak eskalada daukate afizio gisa. Munduan zehar ibiliak izan dira kirol hau praktikatzen eta egun ere askotan honetan aritzen dira.

Proiektua guraso bi hauek bideratu zuten eta bi fase bereizi zituzten.

- a) Eskaladara gerturatzea.: Auzoko aretoan, Diaporama baten emanaldia antolatu zen auzoan eta irekia izan zen auzotar guztientzat. Bertan, Madagaskarrera eginiko bidaia abenturak kontatu zizkiguten eta eskaladarekiko duten pasioa adierazi.

Diaporamaren izenburua: ***Eskalada Magalatxeak***




- b) Eskalada ikastaroa: Guraso bi hauek eta ikasleen inguruko beste familiarteko batzuen laguntzaz, bergarako kiroldegiko rokodromora irteera antolatu genuen. Bertan, eskalada egiteko oinarritzko nozioak jaso genituen eta praktikatzeko aukera izan genuen haur zein helduok.

Beharrezko materiala jantzi ...






Eremu desberdinak probatu...



Paretan gora ibili....

Rapelatzen...



Sukaldean San Blasak egiten

Egutegiko datak aprobetxatuz eta eskolako ikasle baten amak sukaldean duen esku ona aprobetxatuz, San Blasak egiten ikasteko egun pasa antolatu genuen.

Ekintza hau burutzeko, lehenik eta behin, ikastaroan izen ematea ireki genuen. Auzoari irekia izan zen eta 20 hurrek eman zuten izena (eta 16 heldu egon ginen).

Kopurua zehaztuta erosketa arduraduna izendatu eta zerrenda osatu genuen.

Egunean bertan, haurrak taldeka banatu eta mahai bakoitzean 5 ume jarri genituen heldu batekin. Osagai eta materialak banatu eta aditua den AMAk azalpenak eman ahala orea egiten joan ziren umeak.



Behin opila egin ostean, reposoan utzi genituen eta bildutako familiak talde jolasetan murgildu ginen heldu zein umeak.

Helburua, taldeko jolas berriak aurkeztea haurrei, futbolaz aparte beste aukera batzuk ezagutzeko (baseball, balucon, boley-ball, harmiarma jolasa...).



Oreak arratsaldera arte egon behar zuenez, elkartean bazkaria egiteko aprobetxatu genuen. Arratsaldean, oreak hartu, laban sartu eta prest zeuden denbora laburrean jateko!!



Saharako Errefuxiatu Kanpamenduetarako material bilketa

Bubisher eta ATFAL Saharako errefuxiatuen kanpamenduekin lan egiten duten bi elkarteren proiektu bat aprobetxatu genuen ekintza hau burutzeko. 2000. Urtetik, errefuxiatu kanpamenduetako eskolekin lanean dabilta bi elkarte hauek eta urtero formazio saioak ematera joaten dira hemengo bi profesional. Aurten ere bidaia honen aitzakiarekin, material bilketa egin dute (eskolarako materiala).

Proiektu honen berri izan genuen, eta eskolan zerbait egitea otu zitzaigun. Aprobetxatuz, ikasle baten ama proiektu honetako partaide izan dela urtetan, materiala biltzea interesgarria iruditu zitzaigun. Baina, materiala soilik bildu barik, umeekin gaia landu genuen.

Bi atal bereizi genituen:

- Kanpamenduko eskoletarako material bilketa
- Kanpamenduetako Herriaren historia eta egoera ezagutzeko saioa

1. Materiala biltzeko puntu bat jarri genuen aste batez eskolan. Guraso guztiei, mezu bat bidali zitzaien honen berri emateko eta ze material mota jasoko zen adierazteko.



Bertako eskolak



Bildutako materiala

2. Ikasleek eskolan gaia apur bat landu zuten eta egun baten eskolako ikaslearen ama ikasleekin saio bat egitera etorri zen.



2013-2014 ikasturtean egiteko ditugunak

Biodanza ezagutzen

Biodantzaren oinarrian musika, mugimendua eta bizipenak daude. Hiru elementu horiek batzen eta integratzen ditu. Musika da haria, musikak bideratzen du biodantzako saioa. Musikak eta afektibitateak.

Biodantza monitore den guraso batek bideratuko du haur, guraso zein komunitateko beste edozein kide batera arituko diren saioa.

Aurrera eramateko aurreikusten den data: maiatzean zehar.

Hil gabeko arrantza

Arrantzan aritzen den guraso batek bideratuko du eta bi fasetan landuko da.

- a) Hil gabeko arrantzara gerturatzea. Hil gabeko arrantzan aritzen den guraso batek praktika horri buruzko hitzaldia emango du.
- b) Arrantzan egiteko euli artifizialen muntaketa erakustaldia eta praktikak egiteko tailerra.

Aurrera eramateko aurreikusten den data: ekaina.

Ondorioak:

Orain arte aurrera eramandako ekintzei dagokionean balorazioa oso positiboa da. Hezkuntza komunitateko partaide eta eragile desberdinengandik jaso dugun iritzia izan da hau. Gainera, aukera eman digu, gure haurren egunerokotasunean eta beraien ikaskuntza testuinguruetan gure jarduerak presente izateko.

Aurrez markatutako helburuak bete ditugula uste dugu, eta pentsatzen dugu, bide beretik jarraitu behar dugula, eskolan dauden ume guztien gurasoen parte hartzea, behin ez bada ere, lortu arte.

Iruditzen zaigu, komunitatearen kohesioan izugarrizko garrantzia hartu duela proiektu honek, eta, eskolarekin harremana are estuagoa izaten ere lagundu digu. Bestalde, gurasoon inplikazioa lehenengo pertsona eta era indibidualean izaterakoan, protagonista izan direnen balorazioa oso ona izan da. Bai eta, parte hartu duten guraso horien seme edo alabekiko lortu den emaitza. Izugarri positiboa izan da beraientzat beraien ama edo aita eskolan “aditu” gisa ikustea.

Beste alde batetik, iruditzen zaigu, honelako ekintzek, herriko beste guraso batzuk (batez ere guraso berriak) eskolara gerturatzen laguntzen dutela. Iazko ikasturtean, oraindik guraso ez zirenen parte hartzea izan genuen eta beraien kasuan ikusi dugu, eskolara gerturatzeko modu honek asko lagundu diela. Beraz, zentzu honetan, bide beretik jarraitzeko gogoia eta asmoa daukagu.

Bukatzeko, azpimarratu nahiko genuke, gure alaba eta semeen heziketan ez dugula uste eskolak berak bakarrik ahal duenik eta beraz gu ere agente aktibo izan behar garela. Hori horrela, horrelako ekintzak egiten jarraituko dugu.

